

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN FAKULTATEA



FACULTAD DE LETRAS

EUSKAL ARRANTZALEEN ARRANTZA IRLANDAN

Gradu Amaierako Lana. 2019-2020 ikasturtea

Manex Azkue Urkidi
Historiako Gradua
2019-2020 ikasturtea
Tutorea: Sergio Escribano Ruiz
Saila: Geografia, Historiaurrea eta Arkeologiaren saila

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
Metodologia.....	5
Irlandako arrantza: ezaugarri orokorrak	7
Irlandako kokaguneak.....	10
Merkataritza.....	13
Tratamendua	14
Salmenta tokiak.....	17
Arrainen prezioak	23
Irlandako arrantzaren garrantzia	26
Ondorioak	26
Bibliografia	29

Sarrera

Euskal Herriko geografiak eta baliabide naturalek ezinbesteko garrantzia izan dute bertako biztanleen bizi estiloa definitzeko momentuan. Eta esan dezakegu iraganean hasitako joera asko gaur egun oso bizirik daudela. Euskal kostaldeko biztanleek mende luzez egin dute arrantzan, modalitate, arrain mota eta leku ezberdinetan. Gaur egun ere oso bizirik dagoen jarduera bat da, baxurako zein alturako arrantza praktikatzen den portuetan joan etorri handia suma daiteke oraindik. Horien adibide dira Getaria, Pasaia, Hondarribia, Ondarroa edo Bermeoko portuak besteak beste.

Itsasorik gabe gaur egungo euskal gizartea ez zen berdina izango. Beste kultura bat izango zen, beste ekonomia bat, beste merkataritza bat. Esan dezakegu itsasoa ezinbestekoa dela euskal gizartearentzat, ez soilik arrantzagatik, baizik eta arrantzaren inguruan sortu diren lanpostu eta jardueragatik ere bai. Esaterako, merkataritza asko egiten zen atzerrira arrantzara joaten ziren itsasontziekin. Adibidez, Irlandara euskal burdina eramaten zuten, eta itzulerakoan larrua ekartzen zuten (Barkham, 2000: 50). Geroxeago, Ipar Amerikan Ternuara eginiko bidaietan ere badakigu burdina esportatzen zutela (Barkham, 2000: 60). Merkataritzaz gain, arrantzak bestelako jarduerak bultzatzen ditu. Besteak beste, Euskal Herrian garapen handia izan duen ontzigintzarena, edo saregileena. Gipuzkoako klima, ozeanikoa da. Klima horren ezaugarriak ez dira nekazaritzarako egokienak. Erdi Aroan mahatsondo, olio eta zerealen falta zegoen, beraz atzerritik inportatu behar izaten zuten, merkataritza garatuz. Bestalde, temperatura moderatuek eta plubiositate¹ handiek baso hostoerorkorreko zuhaitzak garatzeko aukera ematen dute. Zuhaitz horien egurra ere oso garrantzitsua izan zen Euskal Herrian ontzigintza garatzeko (Alberdi, 2012: 53).

Euskal kostaldean arrantza betidanik egin izan da, baina etapa ezberdinak aurki daitezke, garaia eta helmugaren arabera. Aro Modernoko euskal arrantzaren garairik garrantzitsuena XV-XVI. mendeetan ematen dela esango nuke, batez ere azken urteetako ikerketek Ternuan egiten zen bale eta bakailao arrantzak zuten garrantzia azalerarazi dutelako. Kronologia horretan 3 modalitate ezberdin banatzen ditu Michael Barkham ikertzaileak (Barkham, 2000). Lehenengoa, baxurako arrantza da. Horiek Euskal

¹Toki batean eta denbora jakin batez, batez beste egindako euri kantitatea. (Zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa).

kostaldean egiten ziren, itsasontzi txikietan joaten ziren, arrantzak iraupen motza izaten zuen, eta nagusiki herrietako kofradiek kontrolatzen zuten. Bigarrena, Europako uretan egiten zen arrantza da: etapa honetan Irlanda eta Ingalaterrako arrantzaz gain Asturias eta Galiziako bale arrantza sartzen ditu. Itsasontzi handiagoak erabiltzen zituzten, kasu batzuetan etxetik kanpo bost edo sei hilabete egotera iristen ziren, eta nagusiki armadore, nabigatzaile eta itsasgizon-marinelek finantzatzen zituzten espedizio hauek. Hirugarrena eta azkena alturako edo itsasoz haraindiko arrantza da, euskal arrantzaren historiografian pisu handiena duen etapa. Barkham berak ere urrezko garaitzat hartzen ditu etapa honen 1560-1585 arteko urteak. Modalitate hau munduko txoko ezberdinetan egiten zen, baina Ipar Amerikakoa da ezagunena, bale eta bakailaoren arrantzak pisu handia hartu zuelako (Barkham, 2000).

Irlandako arrantzak garrantzi handia izan zuen bere garaian, baina gerora Ternuako arrantzak ezkutuan utzi zuen. Oso gutxi idatzi da Irlandako arrantzari buruz, eta idatzi dena oso berria da. Gai esanguratsua iruditzen zait, eta horregatik Irlandako arrantzari buruz dagoen informazioa handitzen saiatuko naiz, historiaren garai honi nire ekarpen txoa eginez. Ezinbestekoa iruditzen zait Irlandan egiten zen arrantza ikertzea, ziur asko hurrengo urte eta mendeetan emandako aurrerapen edo aldaketei buruzko klabeak emango dituelako. Horretarako, iturri idatzietan oinarrituko naiz, iturri bibliografiko eta dokumentu historikoetan. Arrantza arkeologikoki aztertzea zaila da, arrainek material ahulak eta galkorrak dituztelako. Beraz, denboraren poderioz atal asko galdu egiten dira. Hala ere posible da arrantzarako tresnak eta materiala aztertzea, eta horri dagokionez saiatu naiz arkeologikoki ekarpena egiten. Aztarnak non aurkitu jakiteko, ezinbestekoa da lehenik arrantzaleak non egon ziren jakitea. Zertan ibili ziren jakitea ere garrantzitsua da, bilatu nahi dugun informazio eta aztarnak zehatzaigoak izan daitezen.

Irlandako arrantzarekin sortzen zaidan beste zalantza bat zergatik joaten ziren Irlandara da. Hau da, Irlandak zerbait edukiko zuen Frantziak, Herbehereek edo Europako beste zenbat lurraldek izango ez zutena, eta galdera horri ere erantzutea garrantzitsua iruditzen zait. Gainera, kontuan hartzen badugu Irlandan harrapatzen ziren arrain batzuk euskal kostaldean ere harrapatzen zirela, galdera horrek zalantza areagotzen dit.

Metodologia

Sarreran aipatu bezala, Irlandako arrantzari buruzko informazio bibliografikoa oso urria da. Beraz oso zaia da Irlandako arrantzari buruzko informazioa zabaltzea iturri bibliografikoetan oinarrituz. Horregatik, Erdi Aroko eta Aro Berriko dokumentuak arakatu ditut, bertan lehen mailako informazioa aurkitzen delako. Zorionez, "Fuentes Documentales Medievales del País Vasco" izeneko liburu bilduma bat dago, Eusko Ikaskuntzak Interneteko webgune batean eskegirik duena. Bertan, Euskal Herriko zenbait tokitako dokumentu historikoak agertzen dira. Informazio hori oso anitza da, horregatik beharrezkoa ikusi dut esparru geografikoa eta kronologikoki mugatzea. Geografikoki Gipuzkoako dokumentuak arakatu ditut, kostaldean arrantza tradizio handia dagoelako. Kronologikoki, 1520an jarri dut muga, dokumentu asko urte horretan amaitzen direlako.

Orrialdean ez daude Gipuzkoako herri guztiak, eta pena da, kostaldeko herri batzuk kanpoan geratzen direlako. Herri hauetako dokumentuak aurkitzen dira bertan, alfabetikoki ordenaturik: Antzuola-Aretxabaleta-Eskoriatza (hirurak batera), Arrasate, Ataun, Azkoitia, Bergara, Deba, Donostia, Eibar-Soraluze (biak batera), Elgeta, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Legazpi, Mutriku, Oiartzun, Oñati, Pasaia-Lezo (biak batera), Segura, Tolosa, Urretxu-Zumarraga (biak batera), Zestoa eta Zumaia.

Hasierako ideia indize terminologikoetan oinarrituz Irlandako arrantzari buruzko informazioa bilatzea zen, baina bertako dokumentu gehienek ez dute indize terminologikorik, indize toponimiko eta indize onomastikoa soilik dute. Beraz, aukera hori baztertuta, Irlanda hitza aurkitzen saiatu naiz bilatzailearen bitartez. Erraza dirudi hasiera batean, baina kontuan izan behar da dokumentu hauek gaztelania zaharrean idatzirik daudela, eta hitz bat edo leku bat izendatzeko modu ezberdinetan idazten zutela lekuaren eta garaiaren arabera.

Nire gusturako oso aipamen gutxi aurkitu ditut Irlandari buruz, beraz Irlandan harrapatzen ziren arrainen bilaketa bat egin dut. Horretarako, Barkhamen dokumentura jo dut, eta honela dio: "<La pesca de Irlanda> -como se le denomina a este importante ramo en la documentación- sobre todo para merluza, congrio, y arenque aunque también para sardinas, variedades de pescados que formaban el recurso más importante de Irlanda durante el siglo XVI" (Barkham, 2000: 45). Beraz, dokumentu horietan bilatzailearen bidez legatza, itsas-aingira, sardinazarra eta sardinaren bilaketak egin ditut, Irlandatik

etorriak izango zirelako frogak bilatzeaz batera. Atal honetan ere arazo antzekoak izan ditut, dokumentuak gaztelania zaharrean idatzirik daude, eta arrain beraren izena modu ezberdinetan agertzen da lekuaren eta garaiaren arabera.

Lan hau egiten, arazo nagusi honi egin behar izan diot aurre: Irlandan harrapatzen ziren zenbait arrain Euskal kostaldean ere harrapatzen ziren. Arrainak kanpotik ekarriak zirela justifikatzeko, dokumentuetan arrainen jatorria bilatzen saiatu naiz. Eta ez badu zehazten arrainen jatorria nongoa den, beste zein arrainekin batera ekarri ziren begiratu dut, eta Irlandako arrainekin batera etorriak baziren, arrain horiek Irlandatik etorriak zirela ondorioztatu. Beste justifikazio bat, arrainen tratamenduan oinarritzea da. Barkhamen hitzetan, “El pescado que se recogía en aguas de Irlanda se salaba allí pero por lo menos la merluza podía ser secada tanto en aquella isla como en la costa vasca, como lo indica una escritura de obligación firmada en San Sebastián el 20 de mayo de 1506” (Barkham, 2000: 50). Xabier Alberdi Lonbidek ere, bere tesi doktoralean honela dio: “Las principales capturas de Irlanda eran de merluza que se salaba y, sobre todo, se secaba, denominándose a la merluza seca “pescado cecial” (Alberdi, 2012: 276). Horregatik, *çeçial* hitzaren beste bilaketa bat egin dut dokumentu historiko guztietan. Egindako bilaketak emaitza eman du, aipamenak herri berrietan aurkitzeaz gain, kontserbazioarekin loturiko informazioa lortu dudalako. Irlandarekin eta arrainekin gertatu bezala, arazoak izan ditut guztiak bilatzeko, leku batzuetan modu ezberdinean idatzita dagoelako.

Irlandako arrantza: ezaugarri orokorrak

Esan dugunez, Irlandako arrantzan gehien arrantzatzen ziren arrainak legatza, itsas aingira eta sardinazarra ziren. Hala ere, badakigu sardinak ere arrantzatzen zirela. Arrantza kanpaina hauek baxurako arrantzaren aldean oso ezberdinak ziren. Hasteko, ez ziren herrietako kofradiek antolaturiko bidaiak, izan ere bidaia hauek merkataritzarekin zerikusi zuzena zuten. Enpresariak eta armadoreak finantzatzen zituzten bidaia hauek. Diru asko inbertitzen zuten hemen, eta horrelako bidaiak antolatzeak kapital handiko inbertsioak eskatzen zituen. Denbora tarteari dagokionez, tripulazio batzuk bost edo sei hilabete ematen zituzten etxetik kanpo, urte erdia alegia. Esan dezakegu bidaia hauek geroago Ternuara egin ziren bidaien aurrekariak direla (Barkham. 2000: 45).

Nahiko bidaia handiak ziren, kostaldeko arrantzan erabiltzen zituzten baino itsasontzi handiagoak erabiltzen zituzten, eskifaia langile gehiagok osatzen zuten, eta behar zuten material eta hornidura kopuruak ere handiagoak ziren. Beatriz Arizagaren hitzetan, Irlandara arrantzan joaten ziren itsasontziek gutxienez 20 tona izan behar zituzten (Arizaga, 2000: 27). Irlandara beraz itsasontzi handietan joaten ziren, nagusiki “nao” eta karabela” deituriko ontzietan. Esaterako, 1534an Gipuzkoan 80-170 tona bitarteko bost nao, 40-120 tona bitarteko hamar karabela eta 40 tonako “zafra” bat prestatu ziren Irlandara eramateko. (Alberdi, 2012: 277). Baina behin Irlandara iritsitakoan, arrantza “pinaza” izeneko itsasontzi txikiagoetatik egiten zuten. Hori horrela dela jakin dezakegu 1511ako udaberrian Santa Marina itsasontzia Irlandan arrantza egiteko alokatua izan zelako. Itsasontzian eraman beharreko materialen artean, *seis pinaças de pescar merluzas e una de matar sardina* aurkitzen da. “Pinaza” hauetako bakoitzean lau-bost arrantzale joaten ziren (Barkham, 1998: 211).

Bidaia bat antolatzeko askotan bazkide egiten ziren zenbait inbertsore. Bazkideen artean itsasontzi bat alokatzen zuten eta beharrezko egitura guztiaz hornitzen zuten. Hau da, beharrezko lehengaiak, arrantzarako materiala, gatza, kupelak, itsasontzi txikiagoak... Marinelak ere kontratatu egiten zituzten. Kapitain lana askotan bazkide batek betetzen zuen, baina badaude kapitaina kontratatzen zuten kasuak ere. Itsasontzien nagusiek, itsasontzia nabigatzeko prest utzi behar zuten, normalean arma eta munizio kantitate batzuekin, eta itsasontziaren arduradun bat bidaltzen zuten bidaiara. Itsasontziaren alokairua ordaintzeko modu ezberdinak zeuden, eskudirutan edo arrantzatutako arrainen kantitate jakin batekin. (Barkham, 2000: 46). Kasu batzuetan,

Mutrikuko 1519ko dokumentuan ikus daitekeen bezala, Irlandara arrantzara joan behar zuten marinelek gastuen heren bat ordaindu zuten, gero arrantzatutakoaren heren bat jasoko zutela adostuta.

Itxura guztien arabera, oso erakargarria zen Irlandako arrantza itsasoarekin loturiko industrian zebilen guztientzat. Marinelek, arrantzaleek, armadoreek eta nabigatzaileek diru irabazi handiak eskuratzen zituzten, baxurako arrantzan baleen ehizarekin loturikoak baino handiagoak. Horren arrazoia zen Irlandan arrantzarako errekurtsu natural asko egotea; batez ere legatza, itsas aingira, sardinzarra eta sardina nagusitzen ziren, oso ondo kontserbatzen zen arraina eta asko saltzen zen deskargatzen zen lekuetan (Ibidem: 46).

Irlandako arrantza urteko garai zehatz batean egiten zen, udaratik hasita azaroa bitartean. Denbora horretan, pentsatzekoa den bezala irlandarrekin harremanak izaten zituzten. Harreman horiek merkataritzarako erabiltzen zituzten, euskal burdina eramanez, eta arrainarekin batera larrua ekarriz (Barkham, Lopez, 1999: 82).

Itxura guztien arabera, bi faktorek eragin zuten Irlandako arrantzaren beherakadan. Lehenengoa, Ternuako arrantzaren garapena izan zen. Nagusiki, bakailaoa eta zetazeoen bila joaten ziren Ipar Amerikara. Ternuara joan ziren lehen euskaldunak Ipar Euskal Herriko marinelak ziren, 1510eko bigarren erdialdean joan zirelarik. Bizkaia eta Gipuzkoako lehen marinelak, berriz, 1525 inguruan abiatu ziren (Barkham, 2000: 55). Garai hartan, Europa guztian bakailaoaren eta balearen olioaren eskaera handiak zeuden. Hasieran, bidaia mistoak egiten ziren, hau da, bakailaoa eta balea arrantzatzeak. Baina denborarekin banaketa eman zen, eta bidaia espezializatuak egiten hasi ziren. Bakailaoa arrantzatzerantz joaten zirenen bidaiak martxoan edo apirilean hasten ziren, eta abuztua-iraila bitartean amaitu. Balearen ehizan aritzen zirenek, aldiz, bi denboraldi izaten zituzten. Lehena, “Euskaldunen balea”² izenekoarena, ekaina eta iraila bitartean izaten zen. Bigarrena “Poloetako Balea”³-ren ehiza zen, eta horren denboraldia urria eta maiatza bitartean izaten zen (Barkham, 2000: 59-60). Beraz, kontuan hartuta ezinezkoa zela Ternuako arrantza Irlandakoarekin uztartzea eta Ternuako arrantzak diru irabazi handiagoak ematen zituela, Irlandako arrantza pixkanaka albo batera geratzen joan zen.

²*Eubalaena glacialis*

³*Balaena mysticetus*

Irlandako arrantzan eragin zuen beste faktorea garai hartako espainiar erreinuaren etengabeko gerrak izan ziren. Michael Barkhamek ondo dioen bezala, XVI. mendearen lehen erdia gerra franko-espainiarrez beterik egon zen⁴. Gerra horiek eragin handia izan zuten arrantzan eta merkataritzan. Hasteko, Espainiak itsas armada osatzeko behin baino gehiagotan konfiskatu zituen arrantzarako prest zeuden itsasontziak. Itsasontzi horiek betetzeko marinela ere beharrezkoak ziren, beraz, marinela askok armadara sartu behar izaten zuten. Ontzi eta marinela faltak arrantzarako gaitasuna asko jaitsi zuen. Erdi Aroko eta Aro Modernoko gerretan ohikoa zen bezala, kortsario kopurua ere asko handitu zen, eta behin baino gehiagotan arrantzatik bueltan zeuden itsasontziak erasotuak eta harrapatuak izan ziren, beldurra sortuz inbertsore eta marinelen artean. Adibidez, 1523ko auzi batean, Hondarribiako hiru lekukok beraien hiru barkuk jasan zuten lapurreta salatu zuten. Gerra testuinguru horretan ere asko kostatu zen armadak konfiskatu gabeko itsasontziak alokatzea. Esaterako, *Santa Cruz* izeneko itsasontzia zortzi hilabetez egon zen Pasaiako portuan alokatu gabe, inbertsoreak kortsarioen beldur zirelako eta ez zegoelako nahiko itsasgizon itsasontzia betetzeko eta nabigatzeko. Itsaslapurretarekin loturik, gerra garai horietan marinela askok nahiago zuten kortsario espedizioetan parte hartu, arrantza eta merkataritzan baino irabazi handiagoak eman zezaketelako bidaia horiek (Barkham, 2000: 62). Hori gutxi balitz, espainiarren eta frantziarren arazoak, espainiarren eta ingelesaren arteko arazoak gehitu behar dizkiogu. XVI. mendearen bigarren erdian bi herrien arteko harremanak gaiztotzen hasi ziren, 1585ean gerra hasiz. Frantziarrekin zituzten arazo berdinei egin behar izan zieten aurre ingelesekin.

⁴"a consecuencia de la rivalidad dinástica entre los Valois y Habsburgos, dominaron la primera mitad del siglo XVI (1499-1505, 1508-1514, 1515-1516, 1521-1526, 1526-1529, 1536-1538 y 1542-44)" (Barkham, 2000: 62).

Irlandako kokaguneak

Metodologian aipatu bezala, dokumentu historikoetan “Irlanda” hitza eta bere aldaerak bilatu ditut, bertan euskaldunek egiten zuten arrantzari buruzko informazioa eskuratzeko. Bilaketa horrek emaitzak eman ditu, Mutriku, Oiartzun eta Pasaia-Lezoko dokumentuetan informazioa aurkitu baitut. Nagusiki nahiko informazio orokorra da, Oiartzun eta Pasaia-Lezoko aipamenetan ez duelako zehazten Irlandako zein partetara joaten ziren. Mutrikukoan aldiz, bai.

Aipamen guztietatik zaharrena Oiartzuneko dokumentuetan agertzen da. Oso kuriooa da, Oiartzun ez dagoelako kostaldean. Horregatik apur bat arakatu eta Pasaiaiko herriaz ari dela ohartu naiz. Aipamen hau 1501 urtekoa da, eta honela dio: “a traydo al dicho puerto, tress e quatro vezes, vino e çera e congrio e sardina e otros pescados que trayan de Yrlanda e Galiza”. Jarraian, beste aipu bat egiten dio Irlandako arrantzari: “çierto pescado que este testigo traxo al dicho puerto, de Yrlanda, por que este testigo se fue a demandar liçencia al dicho alcalde para que lo pudiese descargar a donde quisiese ” (Ayerbe et al, 2013: 295). Arrainak Pasaian deskargatzeko baimenaz ari da.


Pasaia-Lezoko dokumentuetan aurkitutako aipamena beranduagokoa da, 1517koa. Pasaiaiko portuan jazotako liskar batengatik dator. Kasu honetan, Irlandako arrantza zeharka agertzen da, epaiketa Pasaiaiko portuan baimenik gabe sagardoa deskargatzeagatik delako. Hala ere, Pasaiatik Irlandara arrantzara joaten zirenaren informazioa ematen digu bertan. Honela dio: “una pinaça cargada de sidras e descargó las dichas sydras desde la dicha pinaça a una nao que tenia aparejada para la pesca de Yrlanda” (Irixoa, 2013: 213).

Irlandako arrantzari buruzko informazio gehien Mutrikuko dokumentuetan aurkitu dut. Bertan, Irlandari egiten zaion aipamenik zaharrena 1518koa da, eta honela dio: “Juan de Urrutya vecino de Motrico al tiempo que vino de Yrlanda en una nao de Arçabal que trayo pescado e arenque e lo vendio en la dicha canal” (Fernandez et al, 2007: 375).

Mutrikuko dokumentuetan beste behin ere aipatzen du Irlandara arrantzara joateko ideia, kasu honetan 1519an. Honako hau dio oraingo honetan: “que yran a la pesqueria de Guirlanda conbiene a saber a las partidas siguientes” (Ibidem: 620). Kasu

hau oso interesgarria eta aberatsa iruditu zait, jarraian Irlandako zein portu zehatzetara joango ziren aipatzen duelako: “obligados de yr con la dicha nao a la ysla de Guirlanda a los puertos de Ysmeriq e Brendin” (Ibidem: 620). Ysmeriq eta Brendineko portuei tiraka informazio gehiago bilatzen saiatu naiz, ea geografikoki non zeuden kokatuak jakiteko. Baina zoritxarrez, ez dut leku horien informaziorik topatu, ziur asko gaur egun beste izen batzuekin deituriko lekuak izango direlako. Frogatu ezin badut ere, Ysmerick gaur egungo Limerick dela pentsa daiteke, izenek antzekotasun handia dutelako, eta bertan merkataritzan aritzen zirelako.

Bibliografiarekin konparatuz, ikus daiteke lehen izen bat zuten lekuek gaur egun beste izen bat dutela. Barkhamen hitzetan, dokumentuek erakusten dutenez, arrantzale gipuzkoar zein bizkaitarrak nagusiki bi eremutan aritzen ziren arrantzan: hego-mendebaldeko eta mendebaldeko kostan. Hego-mendebaldean Baltimoretik Valencia izeneko irla bitartean aritzen ziren, eta ia 400 kilometro iparralderago joanda, “Calabeq” deituriko kostan, gaur egun Killybegs izenez ezagutua zen mendebaldeko arrantza esparrua. Aurkitutako beste arrantza toki bat “Arrisymín” edo “Reschin” da, hau ere hego-mendebaldean. Pasaiatik irten zen beste itsasontzi bat, aldiz, “Milber” eta “Otelin” izeneko portuetara joan zen. (Barkham, 2000: 50). Ikus daitekeen bezala, garai hartako izen batzuk gaur egun ez dira mantentzen, baina ideia bat egin dezakegu non egongo ziren jakiteko. Pentsatzekoa da, baita ere, garaiko itsas gizon gehienek ez zutela hitz egingo gaelikoa; beraz, entzuten zutenaren arabera deituko ziotela portuari.



1. mapa. Euskal arrantzaleek Irlandan erabiltzen zituzten portu batzuk.

Merkataritza

Irlandatik arrantzatutako arrainek bidaia luzeak egin behar izaten zituzten itsasontzietan. Asko euskal portuetara etortzen ziren, baina beste asko atzerriko portuetara bidaltzen edo eramaten zituzten, atzerrian ere harrera ona izaten zuten seinale. Euskal Herriko portuak merkataritza askean aritzen ziren Europako portu askorekin, Burgoseko kontsulatuaren eraginetik kanpo. Nahiko era kuriosoan kargatu eta deskargatzen zuten merkantzia: tamaina txikiko itsasontziak kargatzen zituzten, eta itsasontzi horiek tona gehiagoko itsasontzietara eramaten zituzten merkantziak, horiek ezin zutelako portu barruan ainguratu sakonera zela eta (Gil, Gonzalez, Hernandez, 2013: 43). Merkantzien artean burdina, artilea, ardoa, egurra eta arrainak zeuden besteak beste (Ibidem: 51).

Euskal Herrian kostaldeko herrietatik barrurantz eramaten ziren arrain horiek, Barkhamek dioen Euskal *Hinterland* deiturikora, eta bertatik Iberiar penintsularen barnealdera (Barkham, 2000: 26). Jose Antonio Azpiazuren hitzetan, euskal kostaldetik garraiatzen hasten ziren merkantzia askok Gasteiz zuten helmuga. (Azpiazu, 1997: 50). Gasteizeko merkataritzak garapen handia izan zuen, batez ere XVII. mendean. Horren arrazoia kokapen geografikoa izan zen, Espainiako artilea, Ipar Europako oihalak, argizaria eta arraina bertatik pasatzen zirelako (Angulo, 1999: 44). Hala ere, zenbait arrain Lizarra, Valladolid, Madril, Aragoi, Logroño eta Toledora ere eramaten zituztela esaten digu (Azpiazu, 1997: 50). Merkantzia hori mandoen bidez garraiatzen zuten. Atal honetan hori baieztatu dezaket, Gipuzkoako barnealdeko herrietan Irlandatik ekarritako arrainen aipamenak aurkitzen direlako. Arrain bakoitza, lekuaren eta garaiaren arabera, prezio ezberdinean saltzen zen, eta horri buruzko informazio zabala eskuragarri dago dokumentu historikoetan. Arraina Irlandako kostatik Euskal Herrira, eta Gipuzkoako portuetatik barnealdera joateko, ezinbestekoa zen arrainen kontserbazioa ahalbidetzen zuen kontserbazio tratamenduren bat ezartzea. Beraz, atal honetan azalduko ditut euskaldunek Irlandatik ekartzen zituzten Gipuzkoako arrainen kontserbazio tratamenduak, salmenta tokiak eta arrain horien prezioak.



1. irudia. Mandazain eta kinkilari baten xehetasuna (Hainbat egile, 2012: 57).

Tratamendua

Gaur egun janaria kontserbatzeko metodo asko ezagutzen ditugu, baina XV-XVI. mendeetan horietako asko ez ziren existitzen; beraz, kontserbazio teknika berri eta eraginkorrek bilatu behar izan zituzten. “Derrigorrez kontserbazio sistemaren bat behar duen elikagaia da arraina. Arrantzaren arrakasta ezin zen aurreikusi, arrantza izatez ustekabe askotara lotuta dagoelako”, dio Jose Antonio Azpiazuk. Arraina portura eramaten zenean, guztia ezin zen deskargatutako portuan kontsumitu, ez zegoelako arrain guztia une hartan jango zuen biztanlerik. Gainera arrainak denbora gutxi irauten zuen egoera onean. Arrantzaldia ona zenean, herri arrantzale batek kontsumitu zezakeena baino gehiago harrapatzen zen. Ondorioz, kontserbatzeko tratamendua eman eta merkataritzara bideratzen zen soberakina (Azpiazu, 1997: 46).

Euskal arrantzaleek Irlandan egiten zituzten kanpainak hilabete asko irauten zuten, eta kasu batzuetan urte erdia irautera iristen ziren. Aurretik aipatu bezala, udaran abiatzen ziren Irlanda aldera, ekainean edo uztailan, eta azaroa ingurura arte ez ziren itzultzen Euskal Herrira (Barkham, 2000: 49). Hilabete horietan zehar jarduten zuten arrantzan, eta kanpainaren hasieran harrapaturiko arrainak urte amaieran Euskal Herrira egoera onean itzultzea ezinezkoa zen, ez bazuten horiek kontserbatzen laguntzen zuten tratamendurik ematen.

Metodologian aipatu bezala, Irlandan harrapatzen zen arrainari bertan ematen zioten kontserbatzeko tratamendua, eta, nagusiki, arraina lehortu egiten zen, Erdi Aroko eta Aro Modernoko lehen urteetako dokumentu historikoetan “pescado çeçial” bezala agertzen dena. “Pescado çeçial” horrek nagusiki legatzari egiten zion erreferentzia. Horregatik, bereizteko, beste arrain bati erreferentzia egitean, atzetik “seco” hitza agertzen da. Hau da, tratamendu berdina legatza ez zen arrain bati egiten zitzaionean. Bi tratamendu horien informazio anitza aurkitu dut ikertutako dokumentu historikoetan, baina beste tratamendu bat ere agertu da pare bat aldiz. Zenbait arrainen atzean “verde” hitza agertzen da, eta horrekin arraina erdi lehortua dagoela esan nahi du, guztiz lehortzera iritsi gabe. Kontserbazio teknika hauek Ternuan ere erabili zituzten, batez ere bakailaoarekin. Arraina lehortzearen prozesuak 50 egun inguru irauten zituela pentsatzen da (Escribano, Azkarate, 2015: 245).

Dokumentuetan gehien agertzen den tratamendua legatz lehortuarena da. “Pescado çeçial” aipatzen duten zortzi aipu aurkitu ditut. Zaharrenak Gipuzkoako probintzia guztiari eragiten dio, 1489. urtekoa da: “e pescado çeçial e atunes, que vengán por mantenimiento de la dicha provincia ansy por mar commo por tierra” (Recalde, Orella, 1988: 73). Jarraian datoz Antzuola eta Elgoibarreko aipuak, biak 1497an idatziak. Antzuolan “la carniçeria e pescaderia, çeçial e hazeite y ansi otras cosa” (Lema, 2002: 17) aurki daiteke. Elgoibarren, aldiz, “E que en otro capítulo se contenía que el pescado cezial se vendiese dentro de los muros de la dicha villa” (Ayerbe, Etxezarraga, 1999: 124). Soraluzeko kasuan bi aipu aurkitu ahal izan ditut. Lehenak, 1505. urtekoak, honela dio: “Yten, las otras rropas e cosas e pescado çeçial e çapatos” (Elorza, 1999: 68). Bigarrena, aldiz, 1517koa da: “así commo rropas de panno [epescado] çeçial e çapatos e las otras mercaderías” (Ibidem: 115). Bergaran, “seys quintales de pescado çeçial (tachado)” agertzen da 1509an (Lema, 2007: 167). Mutrikuko dokumentuan ere ematen digu legatz lehortuaren berri 1517ko aipamenak: “a todos sus besinos de aseitece de candelas e de pescada seçial” (Fernandez et al, 2007: 338). Aipamen berrienak 1519koak dira, Oñatikoak dira. Bi agertzen dira, baina dokumentu beraren parte direnez bakartzat hartu dut, eta honela dio: “se obligaren a basteçer de pescado çeçial e de azeyte e congrio e sardina arencada” (Zumalde, 1999: 194).



2. irudia. XVIII. mendeko bakailao-gatzaketa eta -lehorketari buruzko grabatua (Hainbat egile, 2012: 57).

Arrain lehortuekin jarraituz, sardinaz eta itsas aingirari ere lehortze tratamendua ezartzen zirela esaten dute dokumentu historikoek. Guztira sei aipamen aurkitu ditut legatza ez den arrain lehortua aipatzen. Zaharrena Mutrikukoa da, 1463. urtekoa. Bertan, sardinaz lehortuarekin batera, erdi lehortua ere agertzen da: “milar de arenque seco o verde dos blancas” (Fernandez et al, 2007: 83). Arrain lehortuarekin batera erdi lehortua agertzen den beste aipamena Oiartzungoa da, 1497ko ekainaren 6koa: “millar de arenque verde o seco, dos blancas” (Ayerbe et al, 2013: 143). Gainerako aipamenek arrain guztiz lehortuari soilik egiten diote erreferentzia. Oiartzunekin jarraituz, beste bi aipamen aurki daitezke. 1477an, “e por carga de congrio seco, veynte blancas” (Ibidem: 143). 1497ko beste aipamen batean “Yten, por carga de congrio seco, doze blancas” aurki daiteke (Ibidem: 271). Errenteriako aipamena 1485. urtekoa da: “e por carga de congrio seco veinte blancas” (Crespo et al, 1997: 88). Azkenik, Hondarribiko dokumentuan 1501. urteko aipamena agertzen da: “Yten por carga de congrio seco, un real” (Elorza, Herrero, 2014: 422).

Beraz, ikus dezakegu gehien erabiltzen zen teknika arraina lehortzearena zela, nahiz eta beste zenbait metodo ere erabiltzen zituzten. Pentsatzekoa da ez zutela kontserbazio teknika berdina erabiliko denboraldiaren hasieran eta amaieran arrantzaturiko arrainekin, batzuek besteak baino dezente denbora gehiago iraun beharko zutelako hilda. Horregatik lehortzen zituzten arrain batzuk eta beste batzuk ez. Esan dezakegu erabiltzen ziren teknikak oso eraginkorrak zirela, Irlandan harrapatu eta Euskal Herriko zein Iberiar penintsulako txoko urrunetara ere arraina egoera onean iristen zelako. Eraginkorrak izateaz gain, oso zehatzak ziren, arraina lehortzea oso gauza konplexua zelako. Arrainari hezetasuna %25 kentzen ez bazitzaion usteldu egiten zen. Gainera, arraina era berezian jarri beharra zegoen, eguzkiak gehiegi joz gero arraina gehiegi lehortzen baitzen (Azpiazu, 1997: 48).

Salmenta tokiak

Salmenta tokiei buruzko informazio aberatsa dago dokumentu historikoetan. Arakatutako dokumentu historiko askotan agertzen dira Irlandatik harrapatutako arrainen aipamenak, kasu askotan prezioak ere bai, baina prezioen atala hurrengo kapituluan jorratuko dut. Salmenta tokien informazioa bi zatitan banatu dut. Lehenengo zatian, Gipuzkoako zein herritan saltzen ziren Irlandan harrapaturiko arrainak azalduko dut. Bigarren zatian, Gipuzkoako herriez gain, gainerako zein lekutan saltzen zuten aipatuko dut.

Beraz, Gipuzkoako herriekin hasiz, lehenengoa Debagoiena eskualdean aurkitzen den Antzuola herria da. Antzuola Gipuzkoaren barnealdean dago, beraz interesgarria da bertako aipua. 1497ko dokumentu batean “ayan de entender en el aforar de las viandas que por ano entero de han de dar, es a saber, la carniceria e pescaderia, çeçial e hazeite y ansi otras cosas cadaneros que se ayan de obligar” azaltzen da (Lema, 2002: 17). Interesgarria da bereziki, arrain lehortuari aparteko erreferentzia egiten diolako. Beraz, badakigu Antzuolan Irlandan harrapaturiko arraina saltzen edo banatzen zela.

Antzuolaren ondoan dago Bergara, eta bertan bi aipu esanguratsu aurkitu ditut. Lehenengoa, 1507koa da. Testamentu bat idazteko unean, Juan Martinez de Arguizain Bergarako bizilagunak bere seme zaharrenaren esku lagatzen du herentzia, baina ez herentzia bakarrik, baita zor dizkioten zorrak kobratzea ere. Horietako bat da

sardinzarrarena, “e tresientos maravedis del arenque que le dio ” aipatzen du (Lema, 2007: 124). Beste aipamena bi urte geroagokoa da, 1509koa. Kasu horretan arrain lehortua aipatzen du, “seys quintales de pescado çeçial (tachado)” (Ibidem: 167). Batean zein bestean bereziki aipatzen ez bada ere, lehenengoak Irlandan harrapaturiko arrainak Bergara iristen zirela esaten digu, bigarrenak bezala.

Elgoibarren kasuan, epaiketa baten bidez izan dezakegu Irlandako arrainen salmenten informazioa. 1495ean egindako epaiketa batean, harategiek eta arrandegiek herriaren harresien barnean egon behar zutela arautzen dute: “que tocaua a las carnizerías e pescaderías e pezcado çeçial públicas mandaron que estouiesen e las tobiesen en la dicha villa de los muros adentro de ella e no en otra parte de los dichos arrabales e tierra” (Ayerbe, Etxezarraga, 1999: 124). Arrain lehortuari gero beste aipamen zehatz bat egiten die: “E que en otro capítulo se contenía que el pescado cezial se vendiese denttro de los muros de la dicha villa” (Ibidem: 124). Arrain lehortua herri barruan sartzen zen, baina arrain gazituarekin ez zen berdina pasatzen: “E porque en la dicha sentenzia no se declaraua sardinas saladas no las querían vender ni vendían así como el pescado salado, deziendo que no se entendía a ello” (Ibidem: 124).

Errenteriako dokumentuetan bi urte ezberdinetako informazioa aurkitu dut. Lehenengoan, arrainen salmenten prezioei buruzko informazioa ematen digu, sardinzarra, itsas aingira, legatza eta sardinari buruzko informazioarekin. Dokumentua 1485. urtekoa da, eta Errenterian aurkitzen bada ere, Donostiako merkatuko prezioak dira. Ateratako diruarekin Errege-Erregina Katolikoek obra publikoak bultzatu nahi zituzten⁵. Ez du zehazten arrainen jatorria zein den, baina sardinzarra Irlandan harrapatzen zen, eta itsas aingira lehortua aipatzen du. Sardina eta legatza nondik datozen ezin dugu jakin, baina ez digu horrenbeste inporta, aurreko bi arrainen informazioarekin badakigulako Donostiako merkatuan Irlandatik ekarritako arraina saltzen zela. Bigarren dokumentua 1497koa da, eta kasu honetan bai, Errenteriako merkatuko prezioak zehazten dira, sardinzarra eta legatzarena besteak beste. Donostiako kasuan gertatzen den bezala ez dakigu aipatutako legatzaren jatorria zein den, baina bai sardinzarrarena, beraz ondoriozta dezakegu Errenterian ere Irlandatik ekarritako arrainak saltzen zirela.

⁵“Loss Reyes Católicos estipulan en su privilegio los derechos que han de pagar las mercancías en la lonja de San Sebastian”. (Crespo et al, 1997: 85)

Hondarribiko dokumentuek ematen diguten informazio garrantzitsuena ere arrainen prezioekin loturik dago. Bi garai ezberdinetako prezioak agertzen dira. Lehenengoa, 1501ekoa da, eta bertan itsas aingira lehortua, legatza, sardina eta sardinazarraren berri ematen digu. Bigarrena, aldiz, 1509koa da, eta hemen sardinazarrari buruzko prezioak azaltzen ditu beste zenbait produkturen artean. Hondarribian ere saltzen ziren Irlandako jatorria zuten arrainak.

Mutrikuko dokumentuek oso informazio aberatsa ematen digute, lau urte ezberdinetako informazioa duelako. Zaharrena, 1463. urtekoa da, arrain eta produktu ezberdinen prezioak zehazten ditu. Tartean aurkitzen dira sardinazarra, kasu honetan ere lehortua edo erdi lehortua, itsas aingira eta legatza. Kronologikoki jarraituz, 1517koa da hurrengo aipua, Pedro Ibáñez de Gainza Mutrikuko bizilagunak Mutrikuko udalbatzari herria produktu batzuekin hornitzea eskatzen dio urte guztian zehar: “al conçejo de la villa de Motrico e a todos sus besinos de aseite e de candelas e de pescado seçial” (Fernandez et al, 2007: 338). 1518ko aipamenak zuzenki esaten digu Juan de Urrutya Mutrikuko bizilagunak eramandako arrainak Irlandatik ekarriak direla: “Juan de Urrutya vecino de Motrico al tiempo que vino de Yrlanda en una nao de Arçabal que trayo pescado e arenque e lo vendio en la dicha canal” (Ibidem: 375). Laugarren eta azken aipamena 1519koa da, aurrekoa bezala arrainen Irlandako jatorria zuzenean aipatuz: “dicha su nao hiziere vela del puerto de la villa de Hondarroa o de Motrico para en seguimiento del dicho su viaje de pesqueria y en todo el tiempo que en ella estubieren en la dicha Guirlanda de ende fasta la dicha nao fiziere su derecha descarga en qualquiera de los dichos puertos” (Ibidem: 620). Azken kasu horretan sardinazarrak eta legatzak ari da.


Oiartzuneko dokumentuek ere oso informazio zabala ematen digute. Hemen ere lau data ezberdin aurkitzen dira. Zaharrena, 1477koa da, eta arrainen prezioak zehazten dituzte. Bertan aurkitzen dira sardinazarra, itsas aingira lehortua, legatza eta sardina besteak beste. Hurrengo aipamenak 1497koak dira, ekainaren sei eta zazpikoak. Horietan ere produktuen prezioak zehazten dira, bertan aurkitzen direlarik sardinazarra normala, lehortua edo erdi lehortua, itsas aingira lehortua, legatza eta sardina. Azken aipamena 1501ekoa da, baina Oiartzuneko dokumentuetan aurkitzen bada ere, ez dio Oiartzuneko salmentari egiten erreferentzia. Irlandako kokaguneetan aipatu bezala Pasaiako herriaz ari da.

Oñatiko kasuan, bi urte ezberdinetako aipamenen bidez jakin dezakegu Oñatin Irlandan harrapaturiko arraina saldu dela. Lehenengoa 1489koa da, bertan sardinak aipatzen ditu baina horrekin ez da nahikoa Irlandakoak zirela jakiteko, ez baitu pistarik ematen. Bigarrena, 1519koa da, eta bertan pista garbiagoak daude, “se obligaren a basteçer de pescado çeçial e de azeyte e congrio e sardina arencada” aipatzen duelako (Zumalde, 1999: 194). Dokumentuan zehar gehiagotan aipatzen ditu arrain lehortua eta itsas aingira.

Soraluzeko dokumentuetan Irlandan harrapatzen ziren arrainen aipamenak daude, baina ezin daiteke justifikatu Irlandan harrapatuak zirenik. Zorionez, arrain lehortuaren bi aipamen agertzen dira. Lehena, 1505ean: “Yten, las otras rropas e cosas e pescado çeçial e çapato” (Elorza, 1999: 64); 1517an aldiz, honela dio: “así commo rropas de panno [epescado] çeçial e çapatos e las otras mercaderías” (Ibidem: 124).

Pasaia-Lezoko dokumentuetan badaude aipamen batzuk sardinari erreferentzia egiten diotenak, baina ez dakigu nondik datozen. Goian aipatu dut Oiartzunen 1501eko aipamenak Pasaiari egiten diola erreferentzia. Bertan liskar antzeko bat ikusten da, gaur egun Trintxerpe dagoen eremua Donostiaren ala Pasaiaren lurak diren kontuarekin. Argudio bezala, esaten dute Espainiako Erreinuko zein atzerritik datozen itsasontziek merkantzia deskargatzeko baimena Donostian eskatzen dutela, eta honako hau dio jarraian: “a traydo al dicho puerto, tress e quatro vezes, vino e çera e congrio e sardina e otros pescados que trayan de Yrlanda e Galiza” (Ayerbe et al, 2013: 295).


Dokumentu historiko batzuek Gipuzkoako probintziari egiten diote erreferentzia, bere osotasunean. Horietako bat da "Documentación Real a la provincia de Guipúzcoa. Siglo XV". Dokumentu horien bigarren liburukian, 1489. urteko aipamen batean hauxe aipatzen du: “e pescado çeçial e atunes, que vengan por mantenimiento de la dicha provinçia ansy por mar commo por tierra” aipatzen du (Recalde, Orella, 1988: 73). Isabel erreginak agintzen du mantenugaiekin probintziara sartzen direnei errepresalietatik babestea. Dokumentuan bertan aipatzen du mantenua eramaten duten horiek nondik joaten diren: “Frਾਂçia commo de Navarra e de Bretanna e Inglaterra commo de otras partes” (Ibidem: 73). Garai hartan Irlanda ez zen gaur egun ezagutzen dugun estatu burujabea, Ingalaterrako koroaren menpe zegoen. Beraz, Ingalaterra aipatzen duenean, Irlandaz ere ari dela pentsatu dezakegu.



2. mapa. Irlandan harrapaturiko arrainak Gipuzkoan saltzeko lekuak.

Horiek dira Gipuzkoan Irlandatik etorritako arrainak saltzen ziren lekuak, ikertu ditudan herrietako dokumentu historikoen arabera. Baina badago Euskal Herritik kanpoko merkataritzari buruzko oso aipamen interesgarria ematen digun dokumentu bat ere. Mutrikuko dokumentuetan begira, atzerrian Irlandan harrapaturiko arrainen salmenten informazioa aurkitu dut. 1519ko dokumentua da, Irlandako arrantza portuak aipatzen dituen berbera. Bertan, arrantzatutako arrainen kopuru jakin bat atzerriko zein herritan saldu nahi duten aipatzen du. Mediterraneo itsasoari erreferentzia egin nahian, *agoa dulce* aipatzen du. Jarraian zehazten du zein portuetara joango diren arrainak saltzera. Kasu horretan, guztiak gaur egungo Estatu Espainiarrekoak dira. Zenbait probintziatako leku zehatzak aipatzen dira, hala nola Katalunia, Murtzia, Valentzia, Balear irlak, baita Afrika Iparraldea ere. Hauek dira aipatzen dituen hiri zehatzak: Cartagena, Alicante, Valentzia, Bartzelona, Denia, Mallorca, Mazarron eta Ceuta. Horrekin batera, merkataritzaren intereseko informazio gehiago ematen du, Bartzelonan,

Cartagenan edo Mazarronen garia hartzeko intentzioa ikus daitekeelako (Fernandez et al, 2007: 620).




3. mapa. Mutrikuko artxiboaren arabera, euskal arrantzaleak mediterraneo itsasoko portu hauekin aritzen ziren merkataritzan.

Aipamenik zaharrena 1463. urtekoa da, Mutrikukoa. Berrienak berriz, 1519koak dira, Mutriku eta Oñatiko udalerrietakoak. Beraz, aurkitutako emaitzak 56 urte bitarteko kronologian sartzen dira. Orokorrean, nahiko aipamen berantak iruditzen zaizkit, gehienbat kontuan hartzen badugu dokumentu historiko batzuk XIII. mendean hasten direla. Eta berantak izatearen ideia beste leku batzuetako aipamenek indartzen dute. Adibidez, bibliografiarekin apur bat alderatuz, aipamen zaharragoak aurkitzen dira. Esaterako, Beatriz Arizagak dioen bezala, 1353rako Bermeoko itsasontziak Irlandan arrantzan aritzen ziren (Arizaga, 2000: 27). Irlandako arrantza, aurkitutako kronologiaren aurretik ere egingo zen Gipuzkoako portuetatik, baina arakaturiko dokumentuek ez dute horren pistarik ematen. Garai hartarako bizkaitarrak Irlandan aritzen baziren, pentsatzekoa da gipuzkoarrak ere arituko zirela.

Arrainen prezioak

Irlandan harrapatzen ziren zenbait arrain espezie euskal kostaldean edo Galiziako kostaldean ere harrapatzen ziren. Jarraian aipatuko ditudan arrainak Irlandatik ekarriak direla frogatuta dago. Esaterako, sardinzarra Irlandan harrapatzen zen arraina da, beraz badakigu sardinzarraren prezioa esatean Irlandatik etorria dela. Gainerako arrainak Irlandako arrantzatik ekarriak direla frogatzeko, dokumentu historikoetan bertan bilatu dut horien jatorria. Bestela, arrain horiek jasotako tratamenduari erreparatuz ere Irlandatik ekarriak direla ondoriozta dezakegu.


Sardinzarraren prezioaren berri izateko, sei aipamen aurkitu ditut, guztiak Gipuzkoako ekialdeko herrietakoak, bat izan ezik. Zaharrena Mutrikukoa da, 1463. urtekoa. Bertan, produktu bakoitzaren prezioak zehazten ari dira, eta honela dio testuak: “milar de arenque seco o verde dos blancas” (Fernandez et al, 2007: 83). Hurrengo zaharrena Oiartzungoa da, 1477. urtekoa. Bertan, “e por millar de trenque siete blancas” aipatzen du (Ayerbe et al, 2013: 143); kasu bakarra da “arenque” jarri beharrean “trenque” izenez egiten diona erreferentzia sardinzarrari. Kronologikoki jarraituz, hurrengo aipamena Errenteriakoa da, 1485. urtekoa, Donostiako merkatuko prezioaren berri emanaz. Oiartzunen zortzi urte lehenago zehazturiko prezio berdina aurkitzen da hemen: “e por millar de arenque siete blancas” (Crespo et al, 1997: 88). Hurrengo aipamena ere Oiartzungoa da, 1497koa. “Yten por millar de arenque, seys blancas” (Ayerbe et al, 2013: 276). Sardinzarraren azken aipamenak Hondarribiakoak dira. Lehenengoan, 1501. urtean “Yten por millar de arenques ocho blancas” aipatzen du (Elorza, Herrero, 2014: 422). Bigarrenean, 1509an, “Mas por cada barrica de arenques cuatro blancas” esaldia aurkitzen da (Ibidem: 421).



1. grafikoa. Sardinzarraren prezioaren bilakaera, egindako bilaketaren emaitzen arabera.

Orokorrean ikusita, prezioak mantentzen direla esan dezakegu. Nagusiki, 6-7 “blanca” balio zuen sardinazarraren milako batek. Ematen duenez, tratamendua jasotzen zuten sardinazarren balioa txikiagoa zen, eta horrela ikus daiteke Mutrikuko aipamenean. “Verde” hitzarekin erdi lehortua esan nahi du, guztiz lehortua izango bazen “seco” aipatuko zuen, testuan ikusten den bezala. Azken aipamenean, Hondarribiakoan, balioa jaisten da. Horren atzean kantitatea egon daiteke, beste lekuetan milakoetan neurtzen delako, eta kasu honetan kupeletan. Beste aukera bat txanponaren aldaketaren balioan egon daiteke, 1497an Errege-Erregina Katolikoek txanponaren erreforma egin zutelako. Erreforma horrekin, “blanca” izeneko txanponaren balioa %22 hazi zen (García de Paso, 2001: 23).

Itsas Aingiraren prezioaren berri ematen duten dokumentuak sardinazarraren berri ematen dutenen berdinak dira, baina ezin dezakegu ziurtatu Mutrikun aipatzen den itsas aingira hori Irlandatik ekarria den ala ez. Beraz, kasu honetan zaharrena Oiartzungoa da, 1477an “e por carga de congrio seco, veynte blancas” esaten digu (Ayerbe et al, 2013: 143). Errenteriako dokumentuan dioen Donostiako merkatuan prezioak mantentzen dira 1485ean “e por carga de congrio seco veinte blancas” aipamenean ikus daitekeen bezala (Crespo et al, 1997: 88). Oiartzunen 1497ko ekainaren 7an zehazten diren prezioan “Yten, por carga de congrio seco, doze blancas” (Ayerbe et al, 2013: 276) zehazten da. Azkenik, Hondarribiako dokumentuan 1501eko aipamenaren arabera itsas aingira lehortuaren "karga" batek erreal bat balio zuen: “Yten por carga de congrio seco, un real” (Elorza, Herrero, 2014: 422). Pena da datu gehienak kantitate eta txanpon ezberdinetan daudela, horien arteko konparaketa txiki bat egitea asko zailtzen duelako. Lekeition 1487an, itsas aingira lehortuaren “quintal” bakoitza hiru marabediren truke saltzen zen. Bi “blanca” marabedi bat zirela kontuan hartuta, 6 “blanca” ordaindu behar izaten zituzten Lekeition (García, 1992: 736). Lekeitioko datuarekin alderaketa zehatza egiteko karga eta “quintal” bakoitz zenbat zen jakin beharko genuke, baina ideia bat egiteko balio digu.



2. grafikoa. Itsas aingiraren prezioaren bilakaera egindako bilaketaren emaitzaren arabera.

Bi arrain hauen alderaketa bat eginda, ezin daiteke ondorio garbirik atera, baina garbi ikus dezakegu garai hartan Irlandatik etorritako itsas aingira sardinzarra baino dezente garestiago saltzen zela, eta orokorrean arrain batek kontserbatzeko tratamendua jasotzen zuenean balioa jaisten zitzaiola.

Azpiatal honekin amaitzeko, aipatu nahiko nuke arrain gehiagoren prezioak aurkitu ditudala, bertan aipatutakoez gain sardinarenak eta legatzarenak, esaterako, badakigula Irlandan harrapatzen zirela. Baina zoritxarrez dokumentu historikoetan ez dago pistarik nondik ekarriak izango ziren, eta beraz ezin izan dut frogatu nondik etorriak izango ziren eta lan honetatik kanpo utzi behar izan ditut.

Irlandako arrantzaren garrantzia

Euskaldunak atzerrira arrantzara joaten hasi zirenean, Irlandara joaten hasi ziren besteak beste. Horrek, arrantza garatu eta irabaziak eraginkorrago egiteko aurrerapen teknologikoak eskatu zizkieten. Esan dezakegu Irlanda beste leku batzuetako arrantzen aurrekaria izan zela. Batez ere Irlandan erabilitako kontserbazio teknikak arraina urrunagotik ekartzeko baldintzak sortu zituzten. Esan dezakegu Ternuako arrantza ospetsua ezingo zela egin Irlandan erabili ziren kontserbazio teknikak ez balira erabili. Materialetan ere aldaketak ikusten dira, baxurako arrantzan erabiltzen zen itsasontzi txikien aldean beste tamaina bateko itsasontziak erabiltzen zirelako. Horiek ere gero Ternuan erabiliko zirenaren aitzindariak izan ziren. Merkataritzari dagokionez ere, antzeko zerbait esan dezakegu, euskal lurraldeetatik haratago garraiatu zen harrapakina, portu berriak ezagutuz. Bertako produktuekin ere, euskal burdina Irlandara eramane bezala, Ternuara esportatu zuten.

Ondorioak

Sarreran aipatu bezala, Irlandan euskaldunek egiten zuten arrantzari buruz dugun informazioa urria da, eta horregatik lan honen bidez historiako etapa horri ekarpena egin nahi izan diot. Nagusiki dokumentu historikoetan oinarrituz, Irlandan harrapaturiko arraina Gipuzkoako zein herritara iristen zen aurkitu dut. Esan daiteke garai hartako gipuzkoarren dietan osagai garrantzitsua zela jatorria Irlandan zuen arrain lehortua. Gainera, Gipuzkoako geografia kontuan hartzen badugu, eremu zabal eta garrantzitsuetara iristen zen Irlandan arrantzaturiko arraina.

Informazioa zabaltzearen horretan, arrainen prezioak gehitu ditut, eta zenbait ondorio nagusi atera. Esan dezakegu orokorrean Irlandan harrapatzen zen arraina euskal kostaldean baxurako arrantzan harrapatzen zena baino merkeagoa zela. Horren atzean arrazoi bat baino gehiago egon daitezke: lehena Irlandako arrainek izaten zuten kontserbazio tratamenduak balioa jaistea; bigarrena, baxurako arrantza kofradiak kontrolatua zenez, prezioak adostu edo zergak jartzen zituzten. Irlandan egiten zen arrantza kofradien kontrolpetik kanpo zegoen, beraz askatasun handiagoa zuten prezioak erabakitzeko orduan besteak beste. Oiartzungo dokumentu batean oso argi azaltzen da Donostiako Santa Catalina kofradiak kobratzen zituen zergak (Ayerb et al, 2013: 270).

Lana egiten joan naizen bezala, Irlandara arrantzara zergatik joaten hasi ziren galderaren erantzun ezberdinak aurkitu ditut. Erantzun bat merkataritzarekin loturik egon daiteke, Irlandako larruak oso harrera ona zuelako iristen zen leku guztietan. Arrantza teknikak ere garrantzia izango du, garai hartako euskaldunek zutelako arrantza teknikarik aurreratuenak. Horrela, arrainak bertako biztanleak baino errazago eta kantitate handiagoetan harrapatzen zituzten. Itxura guztien arabera arrain askoko eremuak ziren, eta nahiko merke saltzen ziren Euskal Herrian. Horrek aukera ematen zuen herritar gehienek erosteko. Azpiazuk ere aipatzen du: “Sardinazarra, bakailao lehorraren gisan, txiroaren jatekoa zen, edozeinek erosteko modukoa eta herriko dieta guztietan ezinbesteko osagaia” (Azpiazu, 1997: 52). Azken arrazoi bezala, arrazoi geopolitikoak daude nire ustez: geografikoki ez dago oso urruti Irlanda euskal kostaldetik, eta politikoki ez dira liskarrak ikusten XVI. mendearen bigarren erdian sartu arte.

Ikuspuntu arkeologikotik, lana hankamotz geratu dela esango nuke. Oso ezagunak dira Kanadako kostaldean aurkitu diren aztarna materialak. Guztira, 24 aztarnategi inguru aurkitu dira, euskaldunak kostalde hartan izandako arrantzarekin zerikusi zuzena dutenak (Loewen, Delmas, 2012: 221). Aztarna materialez gain, toponimiak ere informazio esanguratsua eskaintzen digu Ipar Amerikan, eta zer esanik ez euskaldunek kanadar autoktonoekin komunikatzeko erabilitako pidgin hizkuntzak. Zoritzarrez ez dut lortu Irlandan horrelako ekarpena egin dezakeen informaziorik aurkitzea. COVID-19aren kontua dela eta, liburutegietarako sarrera ukatu didate, eta ezin izan dut Irlandako arkeologiari buruzko materiala erabili. Hala ere, bibliografian aurkitu ez ditudan pare bat portu berri identifikatu ditut. Kanadan aipatutako aztarna arkeologikoak aurkitu diren lekuak balearen arrantzarekin dute zerikusia nagusiki, eta Irlandan ez zen balearik arrantzatu, ez beste lekuetan bezala, behintzat. Hala ere, badakigu euskaldunak Irlandan egon zirela, eta bertako arrantza eta merkataritzan garrantzi handia izan zutela; beraz, nire iritziz, badaude nahiko pista aztarna arkeologikoak bilatzen jarraitzeko.

Amaitzeko, aipatu nahiko nuke “Fuentes Documentales Medievales del País Vasco” liburu bilduman informazio asko egonagatik, Gipuzkoako kostaldeko zenbait herri falta direla: Getaria, Zarautz eta Orío. Baliteke herri horietako dokumentu historikoetan Irlandako arrantzari buruzko informazio gehiago egotea. Hari beretik, eta normala den bezala, ez daude ikertu ditudan herrietako dokumentu historiko guztiak. Agian transkribatu gabeko dokumentuetan ere Irlandako arrantzari buruzko informazioa

egon daiteke. Bigarren mapa oso esanguratsua egiten zait, bikain ikusten delako Gipuzkoako erdialdean dagoen hutsunea. Nagusiki hiru eskualde aurkitzen dira bertan. Goierriko hiru herritako dokumentuak ikertu ditut, Urolako beste hiru, eta Tolosakoa, baina ez dut informazio esanguratsurik aurkitu. Agian herri eta dokumentu faltagatik da, eta agian Irlandako arrainak ez zirelako horrenbeste iristen inguru horietara. Hala ere, uste dut lortu dudala Irlandako arrantzak Euskal Herrian eta batez ere euskal herritarrentzat izan zuen garrantzia islatzea, baita Irlandako arrantzaren historian nire ekarpena egitea ere.

Bibliografia

- Alberdi Lonbide, X. 2012. *Conflictos de intereses en la economía marítima Guipuzcoana. Siglos XVI-XVIII*. Departamento de Historia Medieval, Moderna y de América. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Angulo Morales, A. 1999. “Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariak izandako partaidetza eta inbertsioak (XVII. mendearen hasieran). *Uztaro: giza eta gizarte zientzien aldizkaria*. 37-58 orr.
- Arizaga Bolumburu, B. 2000. “La pesca en el País Vasco en la Edad Media”. *Itsas memoria. Revista de estudios Marítimos del País Vasco*, 3. Untzi Museoa-Museo Naval. Donostia-San Sebastian. 13-28 orr.
- Ayerbe Iribar, M.R. Etxezarraga Gabilondo, J. 1999. *Archivo Municipal de Elgoibar (1346-1520)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Ayerbe Iribar, M.R. Irixoa Cortés, I. Lema Pueyo, J.A. San Miguel Osaba, Ana. 2013. *Documentación medieval del Archivo Municipal de Oiartzun. III. 1320-1520*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Azpiazu Elorza, J.A. 1997. “Las Conservas de pescado en Guipuzcoa: de la Edad Media al s. XVIII”. *Arrain kontserbak Euskal Herrian. Industria eta ondarea*. (43-79 orr). Untzi Museoa-Museo Naval. Donostia-San Sebastian.
- Barkham Huxley, M. Lopez Losa, E. 1999. “Pasajes, puerto pesquero”. *Pasaia. Iraganaren oroigarri, etorkizunari begira*. (74-146 orr). Untzi Museoa-Museo Naval. Donostia-San Sebastian.
- Barkham Huxley, M. 2000. “La industria pesquera en el País Vasco peninsular al principio de la edad moderna: una edad de oro?”. *Itsas memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 3. Untzi Museoa-Museo naval, Donostia-San Sebastian. 29-75 orr.
- Barkham Huxley, M. 1998. “Las pequeñas embarcaciones costeras vascas en el siglo XVI: notas de investigación y documentos de archivo sobre el “galeón”, *Itsas memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2, Untzi Museoa-Museo naval, Donostia-San Sebastian. 201-222 orr.
- Crespo Rico, M.A. Cruz Mundeiz, J.R. Gomez Lago, J.M. 1997. *Colección documental del archivo municipal de Rentería. (1237-1500)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.

- Elorza Maitegui, J. 1999. *Archivos Municipales de Eibar (1409-1520) y de Soraluze-Placencia de las Armas (1481-1520)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Elorza Maiztegi, J. Herrero Liceaga, V.J. 2014. *Colección Documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo IV (1499-1537)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Escribano-Ruiz, S., Azkarate A. 2015. “Basque Fisheries in Eastern Canada, a Special Case of Cultural Encounter in the Colonising of North America”. *Archaeology of Culture Contact and Colonialism in Spanish and Portuguese America*. Springer. 239-256 orr.
- Fernandez Martinez, M. Montecelo Fuentefría, L. Herrero Liceaga, V.J. 2007. *Fuentes Medievales del Archivo Municipal de Mutriku (1237-1520)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Garcia de Paso, J.I. 2001: *La política monetaria castellana del Siglo XV*. Departamento de Análisis Económico. Universidad Complutense. Madrid.
- García Fernandez, E. 1992. “Finanzas y fiscalidad de la villa de Lequeitio (1325-1516)”. *Anuario de estudios medievales*. 711-738 orr.
- Gil Saez, J. Gonzalez Arce, J.D. Hernandez García, R. 2013. “El comercio de los puertos vascos en la primera mitad del siglo XVI a partir de los contratos de fletamiento”. *Investigaciones históricas: época moderna y contemporánea*. Valladolid. 37-62 orr.
- Hainbat egile. 2012. *Zumaia eta olagarroa*. Zumaiaiko Udala, Zumaia.
- Irixa Cortés, I. 2013. *Documentación medieval de los archivos municipales de Pasaia y Lezo (1361-1520)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Lema Pueyo, J.A. 2007. *Colección documental del Archivo Municipal de Bergara. III. Fondo Ituber-Eulate (1401-1520)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Lema Pueyo, J.A. Larrañaga Zulueta, M. 2002. *Archivos Municipales (1260-1520) Antzuola (1489-1497), Aretxabaleta (1506), Eskoriatza (1260-1519) y Leintz-Gatzaga (Salinas de Léniz) (1372-1516)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Loewen, B. Delmas, V. 2012. “Opening the Basque box: a critical overview of Basque occupations in the Gulf of St. Lawrence. *Canadian Journal of*

Archaeology, 36. 213-266 orr.

- Recalde Rodríguez, A. Orella Unzué, J.L. 1988. *Documentación Real a la provincia de Guipúzcoa. Siglo XV. Tomo II*. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Zumalde Igartua, I. 1994. *Colección documental del archivo municipal de Oñati (1149-1492)*. Fuentes Documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Zumalde Igartua, I. 1999. *Archivo Municipal de Oñati Tomo II (1494-1520)*. Fuentes Documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza. Donostia.